# Euskaraldian parte-hartzea berresteko jarraibideak

Dokumentu honetan, Euskaraldian parte-hartzea berresteko jarraitu beharreko prozesuaren jarraibideak topatuko dituzue, pausoz-pauso.

## 1. Intranetean sartu

Datuak berresteko lehen pausoa entitatearen profilean sartzea da. Horretarako: https://ariguneak.euskaraldia.eus/ **gunean sartu** behar dugu.

**Intranetera sartzeko**, berriz, bi datu beharko ditugu:




- **Helbide elektronikoa**: aurreko edizioan entitate bezala izena emateko erabili zenuten helbidea.
- **Pasahitza:** aurreko edizioan izena ematean sortu zenuten pasahitza.

**Zer egin pasahitza gogoratzen ez badugu?**




- Klikatu goiko irudian agertzen den lekuan
- Izena emateko erabili zenuten helbide elektronikoa sartzeko eskatuko dizu
- Helbide horretara helduko zaizue, denbora tarte laburrean, pasahitza berregiteko mezua
- **OHARRA:** mezua sarrera-ontzira heldu ez bada spam karpetan begiratu

## 2. Datuak eguneratu: entitatearen datu orokorrak

Behin intranetean sartuta, **entitatearen datu orokorrak eguneratu behar**ko ditugu.

- Aurreko edizioan emandako datuak sartuta ikusiko dituzue
- Bete beharreko datuetan hutsunea ikusiko duzue


ENTITATEAREN DATUAK

Entitatearen izena: Euskaltzaleen Topagunea
Sektorea:
Kide kopurua:
Herrikoa / herriz gaindikoa:
Entitateko kontaktuko pertsona: Kike Amonarriz
Entitateko telefonoa: [redacted]
Entitateko helbide elektronikoa: info@euskaraldia.eus

Entitatearen datuak bete gabe. Falta zaizkizun datuak sartzea derrigorrezkoa da, aurrera egin ahal izateko.

Editatu nire profila

- Datuak editatzen hasteko, sakatu **'editatu nire profila' botoia**.

- Profilean sartuta, **3 datu aldatu behar**ko ditugu:


ENTITATEAREN IZENA *
Proba
SEKTOREA *
- Aukeratu -
KIDE KOPURUA *
- Aukeratu -
HERRIKOA / HERRIZ GAINDIKOA *
- Aukeratu -

- **<u>OHARRA:</u>** Kide kopurua jartzean, entitatea bere osotasunean hartu behar da kontuan; hau da, entitate horretan, denetara zenbat kide/langile/partaide dauden adieraziko da, aukeran edukiko ditugun zenbaki-tarteak baliatuta.

- Hori eginda, **datuak gorde** behar ditugu: orrialdearen azpiko aldean topatuko duzue **'aldaketak gorde' botoia**. Eta azpiko irudian duzuen mezua agertuko zaizue.


Entitateko kontaktuko pertsona: proba
Entitateko telefonoa: 123456789
Entitateko helbide elektronikoa: proba1@proba.com

Zure entitatearen profila zuzen bete duzu. Emandako erantzunei lotutako argibideak/informazioa jasoko duzu laster emandako helbide elektronikoan.

Editatu nire profila

EUSKARALDIA

**50 LANGILETIK GORA DITUZTEN ETA HERRIZ GAINDIKOAK DIREN ENTITATEENTZAKO**

- **Bi baldintza horiek betetzen dituzten entitateei**, entitate barruko kideen izen-ematea jasotzeko lotura propioa (entitatearen url propioa) nahi duten galdetuko zaie.


KIDE KOPURUA *
51 edo gehiago
HERRIKOA / HERRIZ GAINDIKOA *
Herriz gaindikoa: Herri horretan dago kokatuta baina bere
ZUEN ENTITATE BARRUKO LANGILE/KIDEEN IZEN-EMATEAK JASOTZEKO IZEN-EMATE ESTEKA PROPIOA NAHIKO ZENUKE (URL PROPIOA)? *
BAI EZ

- **Bai erantzuten dutenei, azken galdera bat:** entitate barruan izena eman duten kideei txapa, entitatean bertan, banatu nahi dieten jakiteko.


KIDE KOPURUA *
51 edo gehiago
HERRIKOA / HERRIZ GAINDIKOA *
Herriz gaindikoa: Herri horretan dago kokatuta baina bere
ZUEN ENTITATE BARRUKO LANGILE/KIDEEN IZEN-EMATEAK JASOTZEKO IZEN-EMATE ESTEKA PROPIOA NAHIKO ZENUKE (URL PROPIOA)? *
BAI EZ
Entitate barruko kideen artean Euskaraldian izen-ematea sustatzeko eta kideen datuak eskuratzeko aukera ematen dio entitateari. Entitateen ardura izango da lotura hori kideen artean zabaltzea.
ZUEN URLAREN BITARTEZ IZENA EMAN DUTENEI EUSKARALDIKO TXAPA BANATU NAHIKO ZENIOKETE ENTITATEAN BERTAN? *
BAI EZ

## 3. Datuak eguneratzea: egoitzen atala

Behin entitatearen datu orokorrak eguneratu ditugunean, **ariguneen datuak eguneratzea bakarrik falta**ko zaigu.

- Horretarako, ireki berri zaizuen egoitzen atalean **'editatu' botoia baliatu**ko dugu.




- **<u>OHARRA:</u>** Behar izanez gero, atal honetan duzue  egoitza berriak sartzeko aukera ere, goiko irudian ikusten duzuen bezala.

- Amaitzeko, **2 datu sartu** beharko ditugu: **ariguneei lotutako datuak**. Eta ondoren, orrialdearen azpiko aldean dagoen **'eguneratzea'** botoia sakatu.




## Laguntzarik behar?

entitateak@euskaraldia.eus